

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A


Surfa berotu zuen gizona



SANTA CRUZ (AEB), 1959. Jack O'Neill-ek (1923) bere izena zeraman surf denda San Frantziskotik 90 milia hegoaldera aldatu zuen, bertan eguraldia epelxeagoa zelako, eta olatuak hobeak. Hamar urte lehenago finkatu zen San Frantziskon eta arrantzan hasi zen lanean. Aisialdia ere itsasoan ematen zuen gehienbat, surf egiten, bainujantzi arrunt bat soinean, Ozeano Bareko ur hotzak jasaten urte osoan zehar.

Berehala hasi zen uretan bero eusteko zer-bait asmatzeko ahaleginetan, eta PVCz egindako jantzia asmatu zuen lehenik. Handik gutxira, hegaldi batean, DC-3 hegazkinean neopreno izeneko materiala erabili zutela ikusi zuen eta harekin esperimentatzen hasi zen. Neoprenozko jantzia sortu eta pixkana-ka hobetu zuen.

Ordura arte, surf dendeak oholak baino ez zituzten saltzen baina, 1952an, Jackek *O'Neill Surf Shop* zabaldu eta, oholez gain, parafina eta berak asmatutako jantziak ipini zituen salgai. Ingurukoek porrota aurreikusi arren,



Ezkerrean, Jack O'Neill-ek 1959an Santa Cruzen zabaldutako surf denda. Eskuinean, Jack O'Neill bera.

O'Neill-ek surf denda modernoa sortu zuen, eta surf munduko inperio nagusietakoa abiatu.

60ko hamarkadan surfak loraldia izan zuen, baita Jacken negozioak ere. Neoprenozko jantziari nylon geruza bat erantsi zion errazago jantzi eta erantzeko eta atzean lokarri baten bidez ixten zen kremailera ipini zion. 1971n Jacken seme Pat O'Neill-ek surf-larien orkatila eta oholak lotzen dituen lokarria asmatu zuen; handik gutxira,

aitak istripua izan zuen lokarriarekin eta ezkerreko begia galdu zuen.

80ko hamarkadan O'Neill arropa ekoizten hasi zen eta negozioa Europara zabaldu zen. 1985ean Jackek semeen esku utzi zuen San Frantziskoko garaje batean zabaldutako negozio txiki hura, nazioarteko inperio bihurtua. Gainera, nahi izanez gero, surfaren mundua irauli eta negozioa handitu lezake edozein unetan; "surf shop" deituraren eskubideak ditu eta izendapen hori erabiltzen duten enpresa handi nahiz denda txiki guztiak auzipetu ditzake.

Jack O'Neill-ek negozioa albo batera utzi du. Ingurumenari lotutako hainbat proiektu sortu ditu, baita bera bezalako haur dislexikoentzako eskola bat ere. Duela 50 urte Santa Cruzeko hondartzan erositako etxe berean bizi da oraindik, olatuei begi bakarrez begira. Haren helburua ez zen milioika eta milioika dolar fakturatzeari: "Nire asmo bakarra gustukoaren dudana barrabilak izoztu gabe (sic) egitea zen". Eta surfean noiznahi eta nonahi aritu ahal izatea ahalbidetu zuen.

Arrastoak

Lapurren legea indarrean



DUELA HILABETE BATZUK Martha Dahglen austriarrak Partenoia-aren zati txiki bat Greziako gobernuari itzuli ziola jaso genuen atal hone-tan bertan (2.178. zenbakia), eta gobernu eta entitate handiek hala-korik egin ez izana salatu. Bada, Atenasko Akropoliaren museo berria zabaldu dute, baina Parte-

noia-aren frisoari eskainitako aretoa hutsik dago oraindik. Marmolez-ko pieza ezagunak Londresko Bri-tish Museumen daude eta, hango arduradunen esanetan, beraiek dituzte eskubide legalak. 1801ean lapurreta lotsagabea babestu zuen lege zaharkitua noiz ordezkatu-ko du gizalegeak?